

1.BALOREZKO PROPOSAMENA

ZER LANDU BEHAR DUGU? ZEINTZUK DIRA GURE HELBURUAK?

Gure enpresaren helburu nagusia izango da erabiltzen ez den arropa birziklatzea jantzi berriak ekoitziz. Gure asmoa da jantzi birziklatuak, diseinu bereziekin, kalitate handieki egitea eta aldi beren ingurumen kutzaketu murriztea.

ZEIN DA KONPONTZEN DUGUN ARAZOA?

Ehungintza industria munduan gehien kutsatzen duen industrietako bat da. Fast fashionaren ondorioz, munduan 11 milioi tona arropa baino gehiago botatzen dira munduko zabortegetara. Horrek, beste faktore batzuekin batera, eragiten du gure planetako klima-aldaketan. Beraz, gure enpresak ehungintzak eta modak baztertutako tonak murrizten lagunduko luke, arropa berria sortiz. Beraz, erosten gaituzten bezeroek lagunduko dute murrizten klima-aldaketa.

ZERK EGITEN DU GURE IDEA IDEA BERRITZAILEA IZATEA?

Gure ideia berritzailea iruditzen zaigu, ez baikara arropa birziklatzera mugatzen, baizik eta erabili gabe dagoen arropa nortasun propioa duten jantziak bihurtzen dugu. Guk ikuspegi artistiko eta sortzaileko beste aukera bat ematen diogu jantziei. Bizitzarik gabeko jantzi horiek gure eskuetatik pasatu ondoren, pieza eksklusibo bihurtzen dira, eta horrek ez du iraunkortasuna bakarrik sustatzen, baita banakako adierazpen modu bat ere.

FUNTSEZKO FAKTOREAK:

Gure enpresa arropa zaharra berrerabiltzen duen enpresa da. Jendeak erabiltzen ez dituen arropak jasotzen ditugu eta diseinu berrieriarekin saltzen ditugu arropa. Horrela, ehun horiek bizitza berri bat izaten dute, eta ez dira zakarrontzira botatzen eta lurra kutxatzen.

Bezeroentzat garrantzitsuak diren **faktore nagusiak** hauek dira:

KALITATEA 	Saltzen dugun arropa guztia kalitate handikoa da. Bildutako arropa zahar edo kaltetuen artean egoera onean dauden oihalak berreskuratzen ditugu gure jantzi berriak sortzeko. Gure helburua da bezeroei kalitatezko, jasangarriak eta denboran iraunkorrak diren jantziak eskaintzea. Oihala zaharra izan arren, berritu eta diseinu berriko jantzi bihurtzen dugu. Horregaitik, gure enpresaren kalitatea pixkanaka handitzen joango da, eta gero eta produktu hobeak sortzen jarraituko dugu.
JASANGARRITASUNA 	Jasangarritasuna gure faktorerik garrantzitsuena da. Erabiltzen ez diren arropak biltzen ditugu hauek zarbortegietan ez amaitzeko, horrela hondakin gutxiago sortzen eta natura zaintzen dugu. Gure bezeroek badakite gure arropa erosterakoan lurra zaintzen laguntzen dutela, eta erositako arropa denboran iraunduko duela. Hau da, guk kurtxadura murritzen dugun bitartean sortzen ditugun prendak denboran iraunduko direla jantzi hauek berriro ez botatzeko.
DISEINUA 	Gure denda eskaintzen dituen jantziak bai basikoak izan daitezke, hauek urte askoko erabilera izateko, bai diseinu bakarreko arropak, gure disenatzaileek egindakoak, dira. Gainera jasotzen ditugun arroparen arabera diseinuak egingo ditugu, beraz askotan diseinu bakarrak egongo dira berriro errepikaezinak izango direnak.